SABOTAIARI BURUZKO APUNTEAK

Botererik ez dagoela ezer bere xedeak segitzea baino gogaitu arte errepikatzen zaigunean eta ezarri nahi zaigunean haren izenean ez dagoela ezer hutsune absolutoa baino, sabotaia dugu irtenbidea.

Une konkretu batean funtsezko kontraesana ezedukien bihurritzeko premian lehertzen ba da, hauek bere praxiaren ezaugarri nabarmenatzat sabotaia hartuko dute. Sabotaia ez da soilik ekintza konkretua, zeren sistema baten aurka jarririk honen ukapenerako metodoa da. Sabotaia adierazpen exintentzialista era da, zapaltzaile den osoa zalantzan jartzen baitu.

Nork uka dezake sabotaiarako eskubidea? Argi dago, soilik saboteatua denak, gure kasuan boterea bera. Zer saboteatu behar da? Izakia eta bere existentzia askea - gizabanakoa eta kolektiboa - mugatzen duen guzia.

1-. Autosabotaia: bakoitzaren zikinkerian edo miserian irauli egitea, eta asimilaturiko oro eta gizabanako konkretuaren izate eta izate behar mugatzen duen guzia sistematikoki ezabatzen saiatuko da.

Elementu aske baten izatearen autokontziaren herparruan kokatzea besterik ez da: horregatik birrindu behar dira arauak, baloreak, legeak eta kondenaturik izan garen sozializakuntza iraunkor eta errobotikatzailean ikasi dugun guztia. Autosabota iak sujeto oso eta buruonesle bezala askapenera ateak zabaltzen ditu.

2. Botereari sabotaia: gizabanako eta herri izatea baldintzatzen duten kanpoko egiturekin etentzen saiatzen den praktika da. Sabotaiak kasu honetan nahi duena aritzen den gune bakoitzean botere hutsunea sortzea da, kontrabotereko praktika konkretue kin osatzea.

Sabotaia beti disidente deklaratua izan denaren autobalorizatzeko bidea da. Sabotaia berez helburu bihurtzen ba da, galtzen du bere aldatze gailu bezala potentzialtasun osoa. Horregatik sabotaiak bilatu behar duena, askotan oso ongi makilatua e gon ohi den boterearen aurpegi izugarria desmaskaratzea da. Sabotaiari ez dagokiona terrorearen lekuan jartzen da, ekintza desfinkatzaile hutsa zentzuan, nahiak eta etsipenaren arteko goitik ezarritako hausturarekin amaitzea dagokio.

Sabotaia aurrean dugu eta tankera anitzetan hain zuzen ere. Batzu esateagatik aipatuko ditugu inperialismoaren kontra biolentzia iraultzailea, ugazaberiaren aurrean greba basatiak, nuklearren kontrako borrokak, sobietar tanke obsesoen aurrean txekiar n eskatilen minigonak, partisano eta makiak, behin eta berriro (amaren gona atxekituz) eskolara joateari uko egiten dioten umeek, hila bukatzeko dirua heltzen ez denean supermerkatuetan ohostu

egiten duten etxekoandreak, desertoreak, eta burura d akizkizunen adibide guztiak.

Sabotaia azken finean, ironia eta molotovaren artean kokaturik aginte kontrakoa denaren asumitzeko era praktikoa da.

3. Sabotaia ironiko eta parodikoa: tragikoa dena gainazpi egiteko metodoa da. Sabotaia mota honen bidez, absurdoaren logikan sartzen gara buru belarri. Emandako arrazionalitate ilunak ezarri nahi dizkigun adieraziekin eten egiten dugu. Sabotaia zu z ara Esther. Boterea irrigarri uztea, parodiatzea, ironizatu eta berataz barre egitea edo trufatzea, bere dramagatik mendekatzeko erak dira. Zeren adierazteko modu guztia ukatuta dagoenean beti gelditzen da ironia sabotaia era kontrolaezina bezala.

Zelako barrea eragiten didan botereak, hain tristea, hain zurruna, hain absolutoa, hain monolitikoa.

Zer nolako barrea eragiten didaten politikoek, hain korbatatuak, hain apainduak, hain serioak, den denak haien platinozko sudurrarekin eta irribarre dentifrikoarekin.

Ah zer harrea eragiten didaten poliziek, hain harmatuak, hain zapaltzaileak, hain ustelak.

Zelako barre eragiten didan hainbeste gauzak, bestela negar eragingo lidateke. Zeren nahiago bait dut tragikoki barre egitea, nere mukiek jatea eta akabatua nagoela inpresioa ematea baino.

Zalantzarik ez dago, irribarrea bat malkoa baino desfinkatzailegoa da, zeren ezarritakoaren razionalitate makabroaren adieraziak alde batera uzten ditu eta, ironikoa, heroitzaren kontra jartzen da.

Epikurok, barre egitea eta filosofatzea beharrezkoak zirela, zioen. Geuk, mundu petral honi aurka egiteko erabiltzen dugun ironiak barrea sortarazi duela eta gure filosofiak sabotaiaren dimentsio praktikoa duela eransten dugu.

4. Sabotaia terapia bezala: Sabotaiak ba du ere buruzko osasun bezala dimentsioa edo zenbaki sinple izatera determinaturik egotearen autokontsiderazio gainditzailea. Soldaduskara joatea, lanean inorenganatzea, eskolan latatako jakintza jasotzea eta egune roko bizitzaren beste arlo alienatzailek ere gure izate programatizatua ulertu erazten digute. Eta giza ethosen aspektu guzti hauetan hasi behar da, gameluak garen bezala, orratzaren zulotik pasatzeari uko egiten. Eta hemen sabotaia, ezarritakoari uka pen terapia osansuntsu bezala, da zentzudun.

5. Sabotaia sinbolikoa: Sabotaia honela ulertua, boterearen aurpegian berak negatzen dituen signuz blai adierazpen probokatzailea marraskatzeari dagokio. Ona eta benetakoa denaren erreferenteak bezala ezarritako kodigoak suntsitzen dituen errebert sio signikoa da. Sabotaia sinbolikoa autoestimako (gizabanako edo kolektiboa) dosi haundiz eta erasotua sentitzen direnen partez mesprezuz osaturik dago. Sabotaia sinbolikoa desafio

autobaieztatzailea da. Dena sinboloz kutsaturik dago eta segun eta z eintzuk diren edo nortzuk erabiltzen dituzten, sabotaia edo ezarritakoaren estalpe bezala balio izanen du.